

KANALAK

Kanalak, gure proiektua merkatu-segmentuetara iristeko eta gure balio-proposamenak helarazteko baliabideak dira.

Gure iritziz, internetek garai honetan daukan garrantziarekin, gure produktua saltzeko bide hoberena, webgune bat osatzea iruditu zaigu, bertan gure produktuaren berri emango dugu eta bezeroak gurekin harremanetan jartzeko email helbide bat eta telefono zenbaki bat jarriko ditugu.

Hau da, eskaera ez da webgunean bertan egingo, ez baita produktu txiki bat, bere kostua ez baita txikia. Ondorioz, gure salmenta kontrolatuago izateko, harreman zuzenagoa erabiliko dugu, lehen esan dudana bezala, webgunean emandako helbideekin kontaktuan jarritz.

Amaitzeko, banaketa egiteko, gure furgoneta erabiliko dugu, eta leku gehiago behar izanez gero, garraio-enpresa baten bitartez egingo genuke. Baina aurrez esan bezala, ahal bada guk egingo dugu, zerbitzua ahalik eta era gertukoenean egitea baita guretzat zerbitzu on bat emateko puntuetako bat.